



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel.:94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## **UDAL TXOKOEN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZA**

### **ZIOEN AZALPENA**

Ordenantza honen xedea udal txokoen erabiltzaileen interesak eta inguruko biztanleen eskubideak bateratzea da, hain zuzen, intimitate-eskubidea, atsedenerako eskubidea, norberaren bizitza pribatua eta familiarra errespetatua izateko eskubidea; eragozpenik gabe etxebizitzaz gozatzeko eskubidea, eta kalitate oneko eta zaratarik gabeko ingurumenaz gozatzeko eskubidea.

Udal txokoetako lehenengoa ireki zenetik igarotako denborak eta izandako esperientziak iradokitzen dutenez, komeni da hutsune batzuk betetzea, eta, aldi berean, segurtasun juridikoa indartzea; horretarako, berariazko arau-esparrua sortu nahi da, udala gaitzeko, erabiltzaileen eskubide eta betebeharren erregimena eta, bide batez, zehapen-erregimena ezar ditzan; azken horren menpe geratuko dira jarduera horiek.

Udalerriak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen 2. artikularekin bat, bere interesak kudeatzeko eta bere eskuduntzen eremuan, mota guztietako jarduerak sustatu, eta auzokoen beharrianak eta nahiak betetzen laguntzen duten behar beste zerbitzu eman ditzake.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 3. artikulua lurralde mailako toki-erakundetzat jotzen du udalerria, eta 4.1.a) artikulua erregelamenduak egiteko eta beren buruak antolatzeke ahalak aitortzen dizkie udalerriei, lurralde mailako administrazio publikoa direnez, eta beren eskumen-eremua kontuan hartuz. Udal ordenantza udal-barrutian bakarrik aplikatzen den administrazio-xedapena da.

Azken abuztuaren 17tik irailaren 14ra arte, kontsulta publikoaren prozesua burutu zen udalaren web orrian.

Premisa horiek oinarri hartuta, Udal Ordenantza hau formulatu da, hitzez hitz, honako hau dioena:

### **XEDAPEN OROKORRAK**

#### **I. KAPITULUA**

#### **ARAUDIAREN XEDEA, ESPARRUA ETA HELBURUAK**

##### **1. artikulua. Ordenantzaren xedea**

Ordenantza honen xedea udalaren titulartasuneko txokoen erabilera eta gozamina arautzea da.

##### **2. artikulua. Aplikazio-eremua**

Elexalde, Arkotxa eta Moiordin auzoetan dauden udal titulartasuneko txokoei aplikatzen zaie Ordenantza, baita etorkizunean irekiko direnei ere, udal titulartasunekoak badira.

##### **3. artikulua. Helburuak**



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel.:94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

Ordenantza honen helburua honako hau da: udal txokoak erabiltzean erabiltzaileen segurtasuna eta herritarren bizikidetzeta –ordena publikoa hautsi gabe– kontuan hartzen direla bermatzea.

## II. KAPITULUA

### ERABILTZEKO BETEKIZUN ETA BALDINTZAK

#### 4. artikulua. Eskatzaileak

Talde baten izenean txokoa eskatzen duen pertsona joko da eskatzailetzat. Zaratamon erroldatuta dauden 18 urtetik gorako pertsona fisikoak izan daitezke, baita kultura- eta/edo kirol-elkarteak, irabazteko asmorik gabekoak, baldin eta Zaratamon egoitza soziala badute, eta Zaratamon dauden enpresetako ordezkariak ere, organo eskudunek behar bezala baimendutako jardueretan dihardutenak udalerrri horretan.

#### 5. artikulua. Mugak

1. Eskatzaileek 18 urte beteak eduki beharko dituzte eskaera egiten dutenean.
2. Zaratamoko Udalaren eskubidea lehentasunezkoa izango da txoko guztiak erabiltzeko, bere beharren arabera.
3. Erabiltzaile guztiak ordenantzan ezarritako mugak bete behar izango dituzte.
4. Txokoetan sartzen diren adingabeei ezin zaie eman edari alkoholdunik, ezta tabakoz egindako produkturik ere, eta arlo horietan indarrean dagoen legedian xedatutakoari jarraituko zaio.
5. Zaratamon dauden eta bere jarduera udalerrri horretan egiten duten enpresek astelehenetik ostiralera bitartean bakarrik eska daitezke txokoak.

#### 6. artikulua. Eskabidea

1. Eskaera idatziz egingo da: eskabide-orria udalaren bulegoetan aurkeztuko da edo, bestela, udalaren webgunean, TXOKOAK *bannerrean* klik eginez eta “Txokoa erreserbatzeko eskaera” bidaliz.
2. Egun, ordu eta txoko bera erreserbatzeko eskaerak jasotzen badira, lehenago egin den eskaerak izango du lehentasuna.

## III. KAPITULUA

### ADMINISTRAZIOAREN ESKU-HARTZEA

#### 7. artikulua. Baimenak ematea. Tasak ordaintzea.

1. *Elexaldeko eta Arkotxako txokoak*



Zaratumoko Udala  
Bizkaia  
Tel.:94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

1.1 Eskaera onetsi egin dela joko da, udal bulegoetatik baieztapen mezua jasotzen bada. Erreserba baieztatuta, dagozkion tasak ordaindu beharko dira, dirua udalak emandako kontuan sartuz.

Udalean eta Arkotxako udal bulegoan (Gizarte Zerbitzuak) dauden datafonoak erabiliz ere egin daiteke ordainketa.

Ordainketa erreserba baieztatu eta 72 orduko epean egin beharko da. Tasa ordaintzeko agirian erreserba egin duen pertsonaren izena agertu beharko da.

1.2 Ordainketa egin ondoren, ordainagiriaren kopia aurkeztuko da udaleko bulegoetan. Agiri hori eskaneatu eta honako helbide elektroniko honetara bidal daiteke: [txokoak.zaratamo@bizkaia.org](mailto:txokoak.zaratamo@bizkaia.org)

1.3. Tasak ordaindu arte erreserbak ez du ondorioz izango.

Ordainketa 72 ordu horietan egiten ez bada, erreserba deuseztatu egingo da automatikoki.

## 2. Moirdingo txokoa

2.1. Eskaera onetsi egingo da Moirdingo Bizilagunen Elkarteak bidalitako baieztapen mezua jasotzen denean. Erreserba baieztatuta, dagozkion tasak ordaindu beharko dira, dirua Moirdingo Auzo Elkarteak emandako kontuan sartuz.

Ordainketa erreserba baieztatu eta ondorengo 72 orduko epean egin beharko da.

2.2 Tasa ordainduta, ordainagiria eskaneatu eta honako helbide elektroniko honetara bidal daiteke: [moiordin@yahoo.es](mailto:moiordin@yahoo.es), edo bestela, Moirdingo Auzo Elkartearen Zuzendaritza Batzordeko kideei entrega daiteke (harremanetan jartzeko: [moiordin@yahoo.es](mailto:moiordin@yahoo.es)).

2.3 Tasak ordaindu arte erreserbak ez du ondorioz izango.

Ordainketa 72 ordu horietan egiten ez bada, erreserba deuseztatu egingo da automatikoki.

3. Baimenak pertsonalak eta besterenezinak izango dira, hau da, ezin izango dira beste pertsona bati eman.

## 8. artikulua. Erreserba egiteko ordutegia eta baldintzak

1. Erreserbak lanegunetan bakarrik egin ahal izango dira, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 13:00etara.

2. Erreserbak ezin izango dira hilabete baino gehiagoko aurrerapenarekin egin. Erreserba guztiak kontsultatu ahal izango dira udalaren webgunean.

3. Erreserba egin ondoren lokala ez bada erabiltzen, arrazoia edozein izanda ere, ez da dirurik itzuliko eta ezingo da txokoa erabiltzeko eguna aldatu. Erreserba eskaeran adierazitako txoko, egun eta ordurako bakarrik egingo da.



Zaratumoko Udala  
Bizkaia  
Tel.:94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

4. Bereziki aipatu behar dira Eguberriko erreserbak. Helbide bakoitzeko eskabide bakarra egin ahal izango da, honako egun hauetako bakoitzeko: abenduaren 24a, 25a eta 31, eta urtarrilaren 1a (Gabon gaueko afaria, Eguberriko bazkaria, Gabon Zahar gaueko eta Urte Berriko bazkaria). Egun horietarako, eguna, bazkari/afari txanda eta txoko bera erreserbatzeko eskaera bat baino gehiago jasotzen bada, eskabide guztiekin zozketa publikoa egingo da udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan. Zozketaren data erreserba eskatu duten pertsona guztiei jakinaraziko zaie.

## **9. artikulua. Edukiera eta ontziteria**

1. Erabiltzaile kopuruak (eskatzailea barne) ezin izango du txokorako ezarritako edukiera gainditu.
2. Arkotxako txokoa. Arkotxa auzoko 51. zenbakian kokatutako udal txokoaren gehienezko edukiera 24 pertsonakoa da, sukaldean eta gainerako espazioetan daudenak barne. 24 mahaikidek behar dezaketen ontziteria dago txokoan (mahai-tresnak, baxera, beirateria, sukaldeko ontziteria eta abar).
3. Elexaldeko txokoa. Elexalde auzoan kokatutako udal txokoaren gehienezko edukiera 36 pertsonakoa da, sukaldean eta gainerako espazioetan daudenak barne. 36 mahaikidek behar dezaketen ontziteria dago txokoan (mahai-tresnak, baxera, beirateria, sukaldeko ontziteria eta abar).
4. Moiordingo txokoa. Moiordin auzoan kokatutako udal txokoaren gehienezko edukiera 48 pertsonakoa da, sukaldean eta gainerako espazioetan daudenak barne. Egun berezietan, pertsona gehiago sartu ahal izango da, baldin eta eskatzaileak aldeztu aurretik udalaren baimena lortzen badu eta udalak ezarritako baldintzak betetzen baditu. 48 mahaikidek behar dezaketen ontziteria dago txokoan (mahai-tresnak, baxera, beirateria, sukaldeko ontziteria eta abar).
5. Arkotxako eta Elexaldeko txokoetako mahai-tresnak, baxera, beirateria, argia, ura eta garbiketako produktuak udalaren kargura izango dira. Moiordingo txokoko mahai-tresnak, baxera, beirateria, argia, ura eta gasa udalaren kargura izango dira. Garbiketa eta higienarako produktuak Moiordingo Bizilagunen Elkartearen kargura izango dira. Moiordinen paella-ontziak, gas-bonbona eta uztaia erabiltzea Moiordingo Bizilagunen Elkartearen kargura izango da. Mahai-zapiak, ahozapiak eta ontziteria eta lokala garbitzea erabiltzaileen kargura izango da (Moiordingo txokoan izan ezik, bertan Auzo Elkartearen kargura izango dira eta).

## **10. artikulua. Tasak eta bermeak**

1. Dagokion zerga-ordenantzak arautuko ditu tasak eta fidantzak.
2. Bermeak: Bakarrik Moiordingo txokoarentzat. Bermeak txokoa zuzen erabiltzeko eta instalakuntzetako kalteentzako izango dira. "Zuzen erabiltze" horrek ordenantza honetako xedapen guzti-guztiak eta txokoari dagozkion arau propioak betetzen direla esan nahi du.
  - 2.1 Moiordingo txokoan 50 euroko bermea jarriko da eskari bakoitzean. Bermea lokaleko giltzak jasotzean itzuliko zaie arduradunei.
  - 2.2 Bermea berreskuratu ahal izango da lokalean eta osagarrietan kalterik ez baldin badago. 50 euro baino gutxiagoko kalteak bermearekin ordainduko dira. Kaltea 50 euro baino gehiagokoa bada, falta dena ordaintzea erreserba eskatu duen pertsonaren ardura izango da.
  - 2.3 Lokaletik irten ondoren gauzen egoeran gabeziak antzematen badira (txukuntasunik eza, ordenarik eza eta abar) eskatzaileari egoera lehengoratzeko eskatuko zaio, eta horrela, bermea berreskuratu ahal izango du. Moiordingo Auzo Elkartek lan horiek egin behar izanez gero, arrazoia edozein dela ere, lanaren



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel.:94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

kostuak bermeari egotziko zaizkio, ezar daitezkeen administrazio zehapenekin batera.

## **11. artikulua. Erabiltzeko ordutegia. Giltzak jasotzea eta itzultzea.**

1. Txoko bakoitzarentzako ordutegiak ezberdinak izango dira (bazkaria, merienda, afaria) egunen arabera: lanegunak, asteburuak edo jaiegunak.
2. Ordutegiak txoko bakoitzaren antolamendu arauetan ezarriko dira. Nolanahi ere, ixteko orduetarako dagokienez, une oro indarrean dagoen lege-araudiak lokal horietako ezarri duen muga hartuko da kontuan.
3. Elexaldeko eta Arkotxako txokoetako giltzak udalean eta/edo Arkotxako Gizarte Zerbitzuen bulegoan jasoko dira erreserba baieztapenean ezarritako egunean.
4. Moiordingo txokoari dagokionez, eskatzaileari moiordin@yahoo.es helbide elektronikoko bidez edo telefono bidez jakinaraziko zaizkio lokalaren giltzak jasotzeko eguna eta ordua. Giltzak erreserba egunean emango dira.
5. Giltzak udalean edo Gizarte Zerbitzuetan lehenengo lanegunean itzuliko dira, jaso diren lekuan bertan. Moiordingo txokoko giltzari dagokionez, eskatzaileak giltza hartzen duenean erabakiko da nola eta noiz itzuliko duen.

## **IV. KAPITULUA**

### **ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA DEBEKUAK**

## **12. artikulua. Eskatzaileen eta erabiltzaileen eskubideak**

Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak defendatzeari buruzko araudian ezarritako eskubideez gain, udal txokoak erabiltzeko eskatzen duten pertsonak eta erabiltzaileak honako eskubide hauek dituzte:

- 1.- Errespetuzko tratua jasotzeko eskubidea: ez arbitrarioa, ez diskriminatzailea.
- 2.- Udaletik erreklamazio-orriak jasotzeko eskubidea, egoki irizitako erreklamazioak adierazi ahal izateko orri horietan.
- 3.- Txokoan dauden zerbitzu orokorrak erabiltzeko eskubidea, udalak eta/edo Moiordingo Auzo Elkarrekin txoko bakoitzari dagozkion berariazko arauetan ezarri edo zehaztu dituen mugak kontuan hartuta.

## **13. artikulua. Eskatzaileen eta erabiltzaileen betebeharrak**

1. Bai eskatzaileek, bai lokalen erabiltzaileek honako betebeharrak bete beharko dituzte:

1.1 Eskubidea bete, tasak eta fidantza ordaindu eta debekuak eta ordutegia errespetatzea. Era berean, udalak onuradunari helarazitako gainerako ohar guztiak ere bete beharko dira.



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel.:94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

1.2 Txokoaren kontrol-orriak betetzea. Gabezia edo kalte bat baldin badago, kontrol-orrian idaztea. Orria sinatuta giltzarekin batera entregatzea.

1.3 Janaria prestatzeko osagaiak eramatea.

1.4 Aparatuen jarraibideak eta ezarritako araubideak arretaz betetzea, baita lokalaren iragarki-oholean ezarritako informazio-oharrak ere.

1.5 Ondasunei eta pertsoneri sortutako kalteak konpontzea.

1.6 Moioordingo txokoan barbakoak erabiltzen baldin badira, txingarrak segurtasunez itzaltzea eta hondakinak zakarrera botatzea. Guztiz debekatuta egongo da errautsak eta itzaltako txingarrak plazako lorategietara edo alboko mendira botatzea.

1.7 Erabilitako mahaiak garbi-garbi uztea, eta erabili den tresneria guztia biltzea eta horretarako prestatutako tokietan gordetzea. Lokaletik irtetean, hondakin guztiak jasotzea eta garbi eta txukun uztea.

1.8 Hondakinak horretarako dauden edukiontzietara botatzea.

1.9 Araubidea betetzen ez dela antzematen bada, Zaratamoko Udalari edo Moioordingo Auzo Elkarteari jakinaraztea.

1.10 Lokaletik ateratzean argiak eta berogailua itzaltzea, eta leihoak eta atea ixtea. Gasa dagoen lokaletan ixteko giltza ixtea.

1.11 Txokoa erabiltzeko ordutegiak zehatz-mehatz betetzea.

1.12 Lokalean inor badago, eskatzaileak bertan geratu behar du.

#### **14. artikulua. Ekintzekin zerikusirik ez duten pertsonen eskubideak**

1.- Udal txokoaren funtzionamenduak pertsona baten eskubide edo interes legitimoak kaltetzen baditu, pertsona horrek honako eskubide hauek izango ditu:

a) Txokoek sortzen dituzten eta auzokideen bizikidetzari eta atsedeneri eragiten dieten eragozpenak salatzeko eskubidea. Kasu horietan, eskubidea dute administrazio eskudunak dagozkion baliabide teknikoak erabiliz probak egiteko, salatutako eragozpen horiek benetakoak diren ala ez egiaztatze aldera, eta eskubidea dute agintari eskudunek lortutako emaitzen arabera jokatzeko, eragozpenak, hala badagokio, saiheste aldera.

c) Txokoaren ezaugarri buruzko informazioa eta jarduerarekin zerikusia ez duten pertsonen interes legitimoaren ikuspuntutik garrantzitsua izan daitekeen beste edozein informazio eskuratzeko eskubidea.

2.- Aurreko apartatuan aipatutako salaketak zaratak etxebizitzetan sortzen dituen eragozpenei buruzkoak badira, salatzailleek etxebizitzetan sartzen utzi behar izango diete udal teknikariei, espedientea irekitzeko beharrezkoa bada. Salatzailleak etxebizitzan sartzen uzten ez badu, espedientea artxibatu egingo da.

#### **15. artikulua. Eskatzaile eta erabiltzaileentzako debekuak**



Zaratamoko Udala  
Bizkaia  
Tel.:94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

## 1. Eskatzaileek eta lokalen erabiltzaileek honako debekuak izango dituzte:

1.1 Arkotxako eta Elexaldeko txokoen kasuan, barbakoak edo paella-ontziak ezin dira jarri eta erabili ez txokoaren barruan ez kanpoan; era berean, debekatuta dago mahaiak eta aulkiak kanpoaldera ateratzea.

Moiordingo txokoan, aldiz, kokapen bereziagatik, barbakoak eta paella-ontziak kanpoaldean erabili ahal izango dira. Horretarako lekua "Bolatoki" lokalaren kanpoko pasabidea izango da, etxebizitzetatik urrunen dagoen aldean.

1.2 Txokoak dituen instalazioei ez dagokien beste edozein elementu kokatzea, aurretik udalari jakinarazi gabe eta hark onartu gabe.

1.3 Txokora ezin izango da animaliarik sartu, txakur-gidatzaileak izan ezik.

1.4. Titulartasun publikoko lokala denez, tabakoaren aurkako neurriei buruzko legedia betez, guztiz debekatuta egongo da txokoaren barruan erretzea.

1.5 Debekatuta dago eskatzaileak lokalaren erabilera beste pertsona bati lagatzea.

## V. KAPITULUA

### ZEHAPEN ERREGIMENA

#### 16. artikulua. Arau-hauste administratiboak

1.- Arau-hauste administratibotzat joko dira ordenantza honetan sailkatutako egintza edo ez-egiteak, ondorioz sor daitezkeen erantzukizun zibil, penal edo bestelakoak galarazi gabe.

2.- Esparru horretako administrazioiko arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

#### 17. artikulua. Arau-hauste oso larriak

Arau-hauste oso larriak honako hauek dira:

1.- Txokoa horretarako baimenik gabe edo/eta ezarritako tasa edo bermea ordaindu gabe erabiltzea.

2.- Dagokion baimena daukan pertsona edo taldeari txokoa erabiltzen ez uztea.

3.- Adingabeei txokora sartzen uztea, euren guraso, tutoreak edo arduradunak bertan egon gabe.

4.- Instalazioetan edo erabiltzeko dauden materialetan, baita eraikuntzan ere, elementu horiek berriro erabiltzea eragozten duten kalteak nahita eragitea.

5.- Txokoa baimendutakoa ez den beste pertsona bati lagatzea.

6.- Txokoaren erabiltzaileen esku jartzen diren instalazio, zerbitzu eta materialak behar ez bezala erabiltzea, eta elementu horietan kalteak eragitea edo justifikatu gabeko arriskuak sortzea.

7.- Txokoaren barruan erretzea.

8.- Baimendutako gehieneko edukiera gainditzea, pertsonentzako edo ondasunentzako arrisku larria sortzen bada.

9.- Txokoan legeak espresuki debekatutako ikuskizunak eta/edo jarduerak antolatzea.

10.- Txokoa irekitzeko giltzen kopia egitea.



Zarateamoko Udala  
Bizkaia  
Tel.:94 671 00 52

[administrazioa.zarateamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zarateamo@bizkaia.org)

11.- Arau-hauste larri bat egitea, administrazio-bidean ebazpen irmoaren bidez zigortuta izan ondoren, urtebetean, arau-hauste larri bi edo gehiago egiteagatik.

### **18. artikulua. Arau-hauste larriak**

Arau-hauste larriak honako hauek izango dira:

- 1.- Eskaera-orrian azaldutako daturen bati buruz gezurra esatea, datu hori baimena emateko erabakigarria bada.
- 2.- Barbakoak eta paella-ontziak txokoaren kanpoaldean jartzea eta erabiltzea (Moiordingo txokoa salbuetsiz, horretan kanpoan erabil daitekeelako).
- 3.- Barbakoako txingarrak itzali gabe uztea.
- 4.- Mahaiak, aulkiak edo beste edozein material kanpora ateratzea. Txokoak dituen instalazioei ez dagokien beste edozein elementu kokatzea, aurretik udalari jakinarazi gabe eta hark onartu gabe.
- 5.- Ordena publikoaren aurkako erasoak, inguruan bizi direnen oinarrizko eskubideak urra ditzaketenak, batez ere, intimitate-eskubidea, bizitza pribatua eta familia-bizitza errespetatua izateko eskubidea eta familia-etxebizitzaz zarata-eragozpenik gabe gozatzeko eskubidea.
- 6.- Oinarrizko eskubideen kontrako ekintzetara dei egiten duten jantzi, sinbolo edo gauzaren bat daukatenei txokoan sartzeko uztea, bereziki, indarkeriara, xenofobiara edo bazterkeriara dei egiten duen edozer badaramate.
- 7.- Beren kargua betetzen ari diren agintaritzako agenteei edo funtzionario ikuskatzaileei txokora sartzeko ez uztea, eta haien eginkizunak betetzen laguntzeko prest ez egotea.
- 8.- Txokoko giltzak udalean ez itzultzea.
- 9.- Ixteko ezarritako ordua ordubete baino gehiagoan gainditzea.
- 10.- Arau-hauste arin bat egitea, administrazio-bidean ebazpen irmoaren bidez zigortuta izan ondoren, urtebetean, arau-hauste arin bi edo gehiago egiteagatik.

### **19. artikulua. Arau-hauste arinak**

Arau-hauste arinak honako hauek dira:

- 1.- Txoko bakoitzaren itxiera-ordutegia ez betetzea.
- 2.- Lokaletik ateratzean zaborra eta hondakinak ez eramatea, erabilitako tresneria ez gordetzea eta erabilitako mahaiak, lokala eta komunak garbi-garbi ez uztea.
- 3.- Atea eta leihoak ez ixtea, eta argiak eta berogailua itzali gabe uztea.
- 4.- Txokoan sartzeko eta irteteko, inguruan bizi direnen atsedena galaraz dezaketen zarata-eragozpenak sortzea.
- 5.- Edariak kalean edo espazio publikoetan edatea, elkarretaratze edo edari-kontsumo horren ondorioz ingurukoari eragozpenak eragiteko, inguruaren lasaitasuna asaldatzeko edo egoera osasungaitzak sorrarazteko arriskua badago.
- 6.- Aurreko artikuluan aurreikusitako arau-hausteetako edozein, baldin eta bere izaeraren, zergatiaren edo egoeraren ondorioz larritzat jo ezin bada.
- 7.- Ordenantza honetatik ondoriozta daitezkeen betebeharrak bat ez betetzea, arau-hauste oso larritzat edo larritzat hartu ezin bada.

### **20. artikulua. Arduradunak**

- 1.- Ordenantza honetan aurreikusitako egintzak edo ez-egiteak burutzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira hemen xedatutako arau-hauste administratiboaren erantzule, ez betetze hutsagatik ere; hain zuzen, honako hauek:





Zaratumoko Udala  
Bizkaia  
Tel.:94 671 00 52

[administrazioa.zaratamo@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zaratamo@bizkaia.org)

- a) Txokoa erabiltzeko eskaera aurkeztu duen pertsona.
- b) Bertaratu direnak.

2.- Eskatzailea eta txokoaren erabiltzaileak izango dira ordenantza honetan araututako arau-hauste administratiboen erantzule solidarioak, nahiz eta arau-hausteko beste norbaitek edo haien mende daudenean egin, arau-hausteei aurrea hartzeko betebeharra betetzen ez badute.

### **21. artikulua. Arau-hauste oso larriak egiteagatik ezarri beharreko zehapenak**

Arau-hauste larriak egiten direnean, zehapen hauetako bat edo biak jarri ahal izango dira, batera edo banaka, betiere arau-haustearen izaera, garrantzia eta behin bakarrik edo behin baino gehiagotan egiten den kontuan hartuta: **500,01 eta 1.000,00 euro** bitarteko isuna, eta bost urteko debekua, Zaratumoko udal txokoetan sartzeko.

### **22. artikulua. Arau-hauste larriak egiteagatik ezarri beharreko zehapenak**

Arau-hauste larriak egiten direnean, zehapen hauetako bat edo biak jarri ahal izango dira, batera edo banaka, betiere arau-haustearen izaera, garrantzia eta behin bakarrik edo behin baino gehiagotan egiten den kontuan hartuta: **250,01 eta 500,00 euro bitarteko** isuna, eta bi urteko debekua, Zaratumoko udal txokoetan sartzeko.

### **23. artikulua. Arau-hauste arinak egiteagatik ezarri beharreko zehapenak**

1.- Arau-hauste arinak egiten direnean, zehapen hauetako bat edo biak jarri ahal izango dira, batera edo banaka:

- a) Ohartarazpen administratiboa.
- b) Arau-hauste arinak behin baino gehiagotan egiten badira, **100,00 eta 250,00 euro** bitarteko isuna jarriko da.

2.- Arau-hauste arinak egiteagatik ezarritako zehapenak eten egin daitezke, baldin eta arau-haustea bere borondatez berrezte-neurriak egiten baditu: adibidez, gizartearentzako prestazioak eman edo programa hezitzaileetan, kultura- edo prestakuntza-programetan eta antzekoetan parte hartu, araudi bidez zehaztutako moduan eta denboran.

### **24. artikulua. Zehapenak mailakatzea**

Zehapenak nahitaez proportzionalak izan behar dute arau-haustea eragiten duen gertakariaren larritasunarekiko. Zehapen bakoitzaren maila zehazteko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

- a) Arau-haustearen garrantzia gizarte mailan.
- b) Arau-haustea pertsonen segurtasunean eragin duen arriskua.
- c) Pertsonen eta ondasunen eragin zaizkien kalte kualitatibo nahiz kuantitatiboak.
- d) Araua behin bakarrik ala behin eta berriz hautsi den. Araua behin eta berriz hautsi dela ulertuko da administrazio-bidean emandako ebazpen irmo baten bidez zehapena jaso duen izaera eta larritasun bereko edo bestelako arau-hauste bat (edo gehiago) urtebeteko aldiaren egiten denean.
- e) Arau-haustea egitean axolagabekeriak edo nahita jokatu den.
- f) Udalaren xedapenak betetzeko jarrera ona adierazi den. Hori egiazta daiteke egindako kalte konpontzeko neurriak zehapen-espedita bukatu baino lehen hartzen badira.



Zarategui Udala  
Bizkaia  
Tel.:94 671 00 52

[administrazioa.zarategui@bizkaia.org](mailto:administrazioa.zarategui@bizkaia.org)

g) Eragindako pertsonen kopurua.

## **25. artikulua. Arau-haustea preskribatzea**

Arau-hauste oso larriek bost urtera preskribatzen dute, arau-hauste larriek hiru urtera, eta arau-hauste arinek urtebetera.

## **26. artikulua. Zehapenak preskribatzea**

Arau-hauste oso larriengatik ezarritako zigorrak bost urtera preskribatuko dute, arau-hauste larriengatik ezarritakoek bi urtera, eta arinengatik ezarritakoek urtebetera.

## **27. artikulua. Prozedura iraungitzea**

Zehapen-prozedura ebatzi eta gero, interesdunari jakinarazi behar zaio ebazpena, prozedura hasi zenetik urtebetera, gehienez ere; non eta ez den egunen kontaketa eten, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak ezarritako gorabeheraren bat gertatu delako. Epe hori betetzen denean iraungitzen dira jarduerak, aipatutako lege horrek ezarritakoaren arabera.

## **28. artikulua. Zehapenak ezartzeko ahalmena erabiltzeko eskumena duen organoa**

Zehapenak ezartzeko ahalmena erabiltzeko eskumena duen organoa **alkatea** izango da.

## **29. artikulua. Zehapen-prozedura**

Zehapen-prozedurak bat etorri beharko du sektore publikoaren araubide juridikoa eta administrazio-prozedura erkidea arautzen dituen indarreko legerian ezarritako printzipioekin eta aurreikuspenekin, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoarekin.

## **30. artikulua. Zehapenak erregistratzea**

1.- Zehapenen administrazio-erregistroa eratzen da. Bertan jasoko dira udal txokoak erabiltzearekin lotutako zehapen guztien idatzoharrak, bai eta administrazio-bidean emandako ebazpen irmo bidez arau-hausteei ezarritako zehapenak ere, betiere idatzoharren araubiderako nahiz erregistroaren funtzionamendu eta antolamendurako ezartzen diren baldintza eta betekizunak betez eta datuen babeserako legediari jarraituz.

2.- Erregistro hori alkatearen menpe egongo da, eta berak zehaztuko da erregistroa nola antolatu eta nola funtzionatu behar duen; informazioa prozedurak abiarazteko eta zehatzeko eskumena daukaten organoen artean helarazi eta banatzeko sistema ere ezarriko du.

3.- Arau-hauste batengatik jarritako zehapena ezerezten bada, arau-hauste hori ezin izango da kontuan hartu araua behin eta berriz hautsi den edo arau-haustea errepikatu den zehazteko.

## **AZKEN XEDAPENA.- Indarrean jartzea**

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean testu osoa argitaratu eta ondorengo hogeita hamar eguneko epea igarotakoan jarriko da indarrean.